

MAHAI OLINPIKOKO TENISAREN ARAU ESPEZIFIKOAK 2020-2021 IKASTURTERAKO

1. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren izena.

MAHAIKO TENISA

2. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren joko-erregelamenduak.

EZ DAGO ALDAKETARIK

3. Kirol-federazioek antolatutako lehiaketa edo jardueretarako jarduera-arauak.

ARAU OROKORRAK

4. Erakunde parte-hartzaileen barruan egin beharreko entrenamendu eta saioetarako jarduera-arauak.

Kirol-instalazioetako aldagela orokorrak ez dira erabiliko ez aldatzeko, ez dutxatzeko. Lokalera entrenatzeko erabiliko den arroparekin joan beharko da.

Entrenamenduetara joan nahi duten jokalariek aldezturik jakinarazi beharko dute zein egun interesatzen zaizkien, asistentzia antolatzeko. Ostiral arratsaldero, interesdunek entrenatzaileari jakinaraziko diote aurreikuspena, eta entrenatzaileak entrenamendu-plana ezarriko du, igandea baino lehen. Aurreikusitako asistentzian aldaketarik gertatuz gero, entrenatzaileari jakinarazi beharko zaio ahalik eta azkarren, entrenamendu-planean egin beharreko aldaketak egin ditzan.

Mahai batean entrenatzen ari diren pertsonak ezin izango dira zelaiz aldatu, ezta partidak jokatzen ari badira ere.